

noticias de Gipuzkoa

Diario de Noticias de Gipuzkoa. Noticias de última hora locales, nacionales, e internacionales.

Oiartzun eta Karaezen senidetzaren 20. urteurrena ospatuko da

Aste honetan Britainiako ordezkari batek herria bisitatuko du eta euskal kultura ezagutuko du

Martes, 29 de Abril de 2014 - Actualizado a las 06:08h

Oiartzun - Oiartzun eta Karaez (Bretainia) herriaren arteko senidetzaren 20. urteurrena ospatzeko, datozen egunetan Karaezko ordezkari baten bisita izango dute herrian. Oiartzungo Udalak jakitera eman duenez, maiatzaren 1etik 4ra izango dira. Gauzak horrela, oiartzuarrak urteurren hau elkarrekin ospatzera gonbidatu nahi dituzte Udalak eta Karaez-Oiartzun Senidetza Elkartek.

Urteurren hau ospatzeko zenbait ekimen antolatu dituzte. Esaterako, larunbatean, ekitaldi ofiziala izango da udaletxean. Ondoren, bazkari herrikoia izango da Girizia elkartearen. Txartelak Amazkar tabernan eta Garmendi txokolategian daude salgai maiatzaren 1a arte, hamabost eurotan.

Bestalde, aste osoan zehar 20 urtetako senidetza harreman honen argazki erakusketa egongo da ikusgai udaletxeko areto nagusian, goiz eta arratsaldean, 11.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara.

Gainera, bretoiak hemen egongo diren egunetan euskal kultura eta Oiartzun ingurua ezagutzeko egitaraua osatu da. Honenbestez, Astigarragako Sagardoetxea ezagutuko dute, Langileen Nazioarteko Eguneko ekimenetan parte hartuko dute eta Soinuenea bisitatuko dute. - A.M.

▼ PUBLICIDAD ▼

Cargando comentarios...



Publicidad

-
-
-
-

• © Diario de Noticias-Edición Digital

-
-
-
-